

infraganti LUDOBBOOKS

Duela hiru urte jarri zuen martxan Eva Castillok Ludobooks proiektua, Bartzelonan. Bertatik josten ditu bezeroaren neurriko ipuin pertsonalizatuak; gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta euskaraz. «On line» dendak artisau moduan egindako lanaren mimoa eta teknologiaren aurpegi atseginenak dakarren arintasuna konbinatzen ditu.

Bartzelonatik azaldu digu Eva Castillok nola jarri zuen martxan duela hiru urte Ludobooks.com proiektua. Hain justu, Katalunian du motorra eta bihotza pertsonalizatutako liburuen *on line* dendak. «Ez naiz marrazkilari profesionala, baina bizitza guztian marraztu izan dut. Konturatuta nengoen nire semeak –orduan hiru urte zituen– askoz arreta handiagoa jartzen ziela nire kontakizunei bere moduko mutikotxo bat marrazten nio-
nean ipuinetan. Proiektu bat martxan jarri beharra nuen eta ipuin pertsonalizatuen alorrari begiratzea erabaki nuen».

Argazkiekin pertsonalizatuta ipuinak topatu zituen nagusiki sektorean eta berak beste bide bat hartzea erabaki zuen: abatarrak. «Barcelona Activara hurbildu nintzen. Ekintzaileei laguntzeko programa bat da eta bertan jaso nuen nire negozioa martxan jartzeko beharrezko formakuntza. Artisaua zen zerbait egin nahi nuen, baina teknologiaren aurpegi atseginenarekin konbinatuta, proiektua gaur egungoa eta bideragarria izan zedin». Hartara, lehen hila-
beteetan jo eta su aritu zen abatarrak marrazten; orrazke-
ra desberdinak, jantziak, osagaiak, begiak... Finean, pertsonalizatutako liburuen oinarria

osatzen jardun zuen. «Azken helburua da ipuina egin nahi duenak bere inguruko haur edo heldu horren abatarra egiteko osagai guztiak eskura izatea». Izan ere, Ludobooks.com-eko ipuinetan protagonistak eta istorioak aukera daitezke, hasi eta buka.

Behin abatarrek prestatuta, hiru ipuin eredu s -

kain-
tzen hasi
zen. Gaur
egun hamasei
eskaintzen ditu eta
eredu berriak prestatzen ari
da. Lau hizkuntza ditu auke-
ran: gaztelania, katalana, eus-
kara eta galegoa. «Nik oinarria
jartzen dut, baina, gero, beze-
roak aukeratzen ditu pertso-
naiak, izenak, itxurak, testuak,



Lerroon azpian, Eva Castillo eta bere abatarra. Gainontzeko irudietan, ipuinen zenbait lagin. GAUR8


egoerak... Oinarri horretatik abiatuta, norberak bere neurriko ipuina jasotzen du etxean».

Euskarazko testuak ez ditu Eva Castillok berak egiten. «Lagun bat daukat Bete-
lun eta ur-
tero bi-
sitan

estereotiporik. Oso pozik nago ezaugarri horrekin. Neskatoak, mutikoak edota helduak nahi eran konfiguratu ditzakezu, zuk aukeratutako orrazkeraz eta janzkeraz. Txorakeriatzat har daiteke, baina niretzat oso puntu garrantzitsua da, ez dudalako estereotipo estuetan sartu nahi eta mota guztietako familiak irudikatzeko aukera eskaini nahi dudalako», nabarmendu du Castillok.

NOLA PERTSONALIZATU IPUIN BAT

Ipuin bat pertsonalizatzeko lehen urratsa Ludobooks.com atarian sartzea da. «Hamasei ipuin eredu daude aukeran. Horietatik zure ideia gehien gerturatzen dena aukeratu behar duzu; jaioberriei oparitzeko ipuinak, maiteminduen ingurukoak, bidaietakoak, familiakoak... Behin eredu aukeratuta, pertsonalizatzeko prozesua hasten da konfiguratzailer baten bidez. Galdera erraz batzuk erantzun behar dira; adina, gustuak... Ondoren, abatarren pertsonalizazioa egin behar da, protagonistaren itxura fisikoari gerturatzen zaion abatarra osatzeko. Eskaintzak jar daitezke, argazkiak... bezeroak nahi duen guztia. Ipuina erabat moldatzen da bezeroaren beharretara eta nahietara». Castillo buru-belarri harrrapatu dugu Aitaren Egunari



joa-
t e n
natzaio.
Hamar bat
egun ematen di-
tut bertan. Nire lagun
horrek egiten dizkit euska-
razko itzulpenak eta zuzenke-
tak».

Ludobooks egitasmoak badu beste tasun garrantzitsu bat bere arduradunean esanean. «Ez dauka generoari lotutako



begira lanean. «Konturatu naiz Aitaren Egunkoa dela nire kanpainarik indartsuena, eskari gehien egun horren bueltan izaten baitut. Ipuin horretan haurrak dira protagonista –bat edo bi– eta aitari buruz hitz egiten dute. Eske-rrak ematen dizkiote elkarrekin egiten dituzte gauzengatik, aitaren umetako argazkiak txertatzen dira ipuinean, umetan aita nolakoa zen kon-

tatzen da... Arrakasta handia dauka ipuin horrek»

Ipuin pertsonalizatu horien arrakastaren muina lan horren atzean dauden denbora, mimoa eta dedikazioa dira. «Norbaitek oparia pentsatzen eta prestatzen denbora pasatu duela, zuri buruzko ezaugarriak pentsatzen aritu dela, zure umetako argazkiak topatzeko lana hartu duela... hori da benetan proiektuaren arrakas-



Ipuin pertsonalizatuen benetako balioa norbaitek maite duenari opari bat egiteko hartutako denbora eta ardura dira. «Ipuin erabat emozionalak dira», dio sortzaileak

Ipuina eskatu eta astebete baino lehen etxean jasoko du bezeroak. Formatu desberdinetan egin daiteke eta pertsonalizatutako panpinen aukera ere badago

ta. Nire eskaintza ona izan daiteke –eta nik hala uste dut–, baina ipuina berezi eta magiko egiten duena oparia egiten duen pertsona da zalantzarik gabe. Hain azkar doan mundu honetan, dena etxe izkinako denda txinatarrean azkar eta merke eskura daitekeen mundu honetan, norbaitek opari bat pentsatzeko eta prestatzeko denbora eta ardura hartzea, hori da benetako oparia. Ipuin emozionalak dira erabat», nabarmendu du Castilok.

Bezeroaren eskaerak eta nahiak ordenatzeaz eta atontzeaz arduratzen da proiektuko arduraduna. «Beren nahiak entzun eta nire ipuinetan ahalik ondoen jasotzen saiatzen

naiz. Lehen proposamena egin eta berehala bidaltzen diet bide digitalen bidez, gustatu ote zaien edo aldaketaren bat beharrezko ikusten duten jakiteko. Behin ipuina orraztuta, inprentara doa. Orain, gainera, programa baten bitartez bezeroak une oro jakin dezake ipuina zein prozesutan dagoen. Hori oso garrantzitsua da, opariak garaiz iritsi behar dutelako», azaldu du.

Izan ere, Castilok mimo bereziz zaintzen ditu bezeroak, «oinarrizkoa» iruditzen zaio-lako. «Nik nire bezeroekin hitz egiten dut etengabe. Proiektuaren atzean pertsona bat dago, ni neu, eta garrantzitsua iruditzen zait hori. Ipuina era-

bat pertsonalizatua izan dadin harreman hori beharrezkoa iruditzen zait».

Ipuinak formatu desberdinetan eskaintzen dira –tapa biguna edo tapa gogorra– eta horren arabera epeak aldatu egiten dira, baina hiru eta sei egun bitarteko epean jasoko du bezeroak eskatutako ipuina etxean. Bidalketa gastuak Ludobooks-en kontu joaten dira. Ipuinen kostua 29 eta 37 euro artekoa da.

«Badut beste eskaintza bat: panpina pertsonalizatuak. Ipuinerako osatutako abatarra oinarri hartuta egiten ditut panpinak eta poltsikoan QR kode bat jartzen diet ipuinarekin. Benetan opari ederra da. Jende askok panpina bera oparitzen du, paperezko ipuinik gabe, panpinak ipuina baitarama bere baitan», azaldu du Castilok.

Ludobooks-en bezero nagusia 25 eta 35 urte bitarteko emakumeak dira. Eta Euskal Herri-rik eskaera asko jasotzen omen ditu Castilok, «eta berdin segitu nahiko nuke!». •

amagoia.mujika@gaur8.info